Lunes 18.11.13
EL DIARIO VASCO



Josu Osak txertatze eta kimatze ikastaroa eman zuen aurten ere, eta iaz bezala ekintza arrakastatsuenetarikoa izan zen. :: ARGAZKIAK MURUA

Errezil sagar uzta ederra Gabirian

Jende ugari bildu zen Gabiriako XII. Errezil Sagar Lehiaketan eta Baserriko Produktuen azokan

GABIRIA

Aurten beste urte batzuetan adina sagar izan ez denez, eta ondorioz lehiaketarako izena herritar gutxiagok eman zutenez, sari bakarra banatu zen

:: **MURUA**

GABIRIA. Eguraldiak lagundu ez arren, jende ugari bildu zen atzo Gabiriako XII. Errezil Sagar Lehiaketan eta Baserriko Produktuen azokan. Izan ere, azken urteetan bezalaxe, aurten ere udazken giro busti lainotsuan esnatu zen egunsentia antolatzaileek eta lehiaketetan parte hartu behar zuten baserritarrek udazken sasoiko produkturik ederrenak euren mahaietan txukuntxukun jartzen zituzten bitartean, eta negu atariko giro hotz-euritsuan agurtu zuten aurtengo ekitaldia antolatzaile, baserritar eta kanpotik etorritako hainbat eta hainbat lagunek datorren urtean, ahal dela behintzat, eguraldiak hain jokaera makurrik ez dezala izan eskatuz; izan ere, ia urte asko dira jarraian beti eguraldi txarra egiten, baina zein urte sasoitan antolatzen den ikusita, harritzekoa ere ez da horrelako eguraldia egitea eta ia ohitzen hasiak gara.

Antolaketari dagokionez, aurreko urteetan bezalaxe, goizeko bederatziak aldera ekin zioten antolatzaileek lehiaketarako, erakusketarako nahiz azokarako behar ziren gauza guztiak prestatzeari eta hamarretarako, lehen bisitariak heldu zirenerako, dena prest zegoen. Baserriko garaiko produktu gehienak izan ziren bertan salgai, nahiz eta errezil sagarra izan zen nagusi.

Herriko plazaren inguruan Ezkio-Itsasoko Udalak utzitako karparen babesean lehiaketarako eta erakusketarako aurkeztutako sagarrak jarri ziren eta, horietaz gain, karparen barruan fin asko aritu zen txertaketa lanetan bigarren urtez jarraian Josu Osa, Izan ere, iaz izan zuen arrakasta ikusirik, berriro ere komeni zen antolatzaileen ustez Josu Osak txertatze eta kimatze ikastarotxoa ematea.

Bestalde, txertaketako ikastaro gehiena grabatu egin zen eta hemendik egun batzuetara Erbie elkarteak duen errezilsagarra.com web gunean ikusi ahal izango dute nahi duten guztiek ze txertaketa mota ditugun, nola egiten den eta noiz egiten den.

Hogei barietate ikusgai

Josu Osaren saioaz gain, eta aurten lehenengo aldiz sagar barietate desberdinen erakusketa antolatu ere zen, eta aurten sagar urterik izan ez bada ere, denetik zegoen bertan: sagardo sagarrak, mahai-sagarrak edota baterako zein besterako balio dutenak, esate baterako, errezil sagarra bera. Guztira hogei barietate jarri ziren ikusgai azokan eta horietatik batzuk Idiazabalgo Ramon Asegiolazak bere sagastietan bilduak.



Lehiaketara aurkeztu ziren errezil sagarretako batzuk.



Ezti lehiaketako epaimahaia lanean.

Aurtengo edizioan, eta hori ere berrikuntza gisa, sagar urtea ez denez eta herritar gutxik hartu zutenez parte errezil sagar lehiaketan, epaimahaiko lanetan jardun zutenak ez ziren azken urte hauetan aritu direnak izan, eta horien lekua bertaratu zirenek bete zuten. Horien iritziz, aurtengo errezil sagar lehiaketako saria Kataraingo Pedro Iztuetak merezi zuen eta berak jaso zuen garaikurra. Datorren urtean, berriro ere sagar urtea izango denez, epaimahai lanetan arituko direnak azken urteotako adituak izango dira.

Fatima Asurabarrenaren eztia

Errezil sagarren lehiaketaz gain, Goierri beheko ezti lehiaketa ere bigarren urtez jarraian Gabirian egin zen eta irabazlea oraingo honetan herritarra dugun Fatima Asurabarrena izan zen eta bere semeak jaso zuen saria.

Azkenik, Goruntz dantza-taldeko dantzariek 'Sagar-dantza' eskaini zuten eta ondoren urtero baserriko produktuak erosten dituztenen artean saskikada bat errezil sagar banatzen denez, zozketa egin zen eta saritutako zenbakia 674a izan zen.